

## basque FEST, EUSKAL KULTURAREN JAIALDIA, BILBORA ITZULIKO DA ASTE SANTUAN. GUZTIRA, 300 JARDUERA BAINO GEHIAGO ANTOLATUKO DIRA, ESPAZIO BERRIAK ZEIN ZINEMA ATALA BARNE HARTUTA

- Apirilaren 17tik 21era, Bilboko Udalak Aste Santurako prestatu duen basque FEST programaren barruan, 300 jarduera baino gehiago antolatuko dira. Gehienak doakoak eta adin guztiak ikusleentzat izango dira, eta askotariko gaiak jorratuko dira, besteak beste: gastronomia, antzerkia, musika, dantza eta herri kirolak.
- Berritasun handienetako bat Zinema atala da, eta betikoekin bat egingo du (Kultura, Musika, Market, Sport eta Gourmet). Atal berrian Koldo Serraren *Gernika* filma estreinatuko da BBK Salan, bai eta “Gernika, kameren atzean” erakusketa ere, David Herranz argazkilariaren eskutik.
- Errobi da edizio honetako jaialdi gonbidatua, Lapurdiko Itsasu herritik dator, eta Kalakan eta Khami taldeen MUGAK ikuskizunarekin abiaraziko da jaialdia, apirilaren 17an, 20:00etan Azkuna Zentroan Musika-eskaintza izango da basque FESTeko indarguneetako bat, eta betiko izarrak bilduko ditu (Oreka TX edo San Salvador, esaterako), gaur egun modan dauden proiektu handiko artistekin, Izaro kantautorea, besteak beste.
- Zabalguneko eraikina eta Arriaga plaza izango dira espacio berriak, eta dantza tradizionaletarako jantzien erakusketa eta familientzako erraldoien tailer berri bat eta kaleko animazioa antolatuko dira bertan.
- Areatzan, aurten ere, Txoko Gourmet egongo da; 1.500m<sup>2</sup> baino gehiagoko karpa bat da, non turismorako hamabi euskal eskualdek eta elkartek lurrealdeen onena ezagutaraziko dute informazio-standekin eta 2.160 pertsonentzako produktuen dastatzeekin Amaitzeko, Arriaga plazan Akelarre bat egingo da, euskal kulturaren erroei eta mitologiari lotuta dagoena.

(Bilbon, 2019ko martxoaren 25ean.-) Aurten ere euskal kulturaren jaia Bilbora itzuliko da Aste Santuan. Apirilaren 17tik 21era, **basque FEST** ekimenak kultura eta aisiaidirako eskaintza ekarriko dio hiribilduari, eta aurreko urteetan baino aberatsagoa izango da. Bilboko Udalak prestatu du programa, eta, guztira, 300 jarduera baino gehiago egongo dira. Doakoak izango dira, eta gustu eta adin guztiak pertsonentzat pentsatuak. Jaialdiko ohiko atalez gain (Kultura, Musika, Market, Sport eta Gourmet), Zinema izango dugu aurten, non Koldo Serra zuzendari bilbotarraren *Gernika* filma ikusiko dugun.

Zazpigarren urtez jarraian, Bilbo herri kiroletarako agertokia izango da, eta producto gastronomiko onenez gozatzeko aukera izango dugu, bai eta euskarara hurbiltzako eta kalejiren alaitasuna sentitzeko aukera ere, besteak beste. basque FEST espacio berrieikin itzuliko da, itsasadarreko jarduera berrieikin eta goi-mailako musika-eskaintzarekin.

Iparraldeko Kalakan hirukotea, San Salvador eta Oreka TX taldearen ikuskizun berriaren munduko estreinaldia eta Izaro euskal poparen izarra azpimarratu behar ditugu.

## **ZAZPI EDIZIO**

Zazpi urteko ibilbidearen ostean, bisitariak Bilbora erakartzeko eta jarduera ekonomikoa sortzeko iturri gisa finkatu da basque FEST. Hiria dinamizatzeko, “hurbileko merkatua” delakoa bultzatzeko eta kultura-turismoa sustatzeko proiektu bat da, bai eta Aste Santuan hirian geratuko diren bilbotarrei kalitate oneko proposamena eskaintzeko proiektua ere. Jaialdiaren azken edizioan parte-hartzaileen markak hautsi ziren 100.000 pertsonarekin.

Bilboko Udalak programatu ditu jarduerak honako merkataritza-elkarrekin batera: Bilbao Dendak, Bilbao Erdigunea, Casco Viejo-Zazpi Kaleak eta San Frantzisko, Bilbo Zaharra eta Zabala. Horrez gain, beste erakunde, entitate eta eragileren laguntza ere izan du, besteak beste: Bizkaiko Ostalaritza Elkartea, Bilbao Historiko, Baskegur, Metro Bilbao, BBK Fundazioa, turismo-eskualdeak (Aiaraldea, Iparralde, Arabako Errioxa, Enkarterri, Gorbeia, Lea Artibai, Urdaibai, Uribe, Goierri, Tolosaldea, Euskal Kostaldeko Geoparkea), Bilbao Musika, Euskal Museoa eta kultura-eragile batzuekin, hala nola Kafe Antzokia eta La Ribera. Horrenbestez, hirian ekitaldiak martxan jartzeko erakundeen arteko kooperazioaren eta kolaborazio publiko eta pribatuaren beste adibide bat da.

## **LAPURDIKO ITSASU HERRIKO ERROBI JAIALDIA IZANGO DA AURTENGO GONBIDATUA**

Euskal kulturaren jaia apirilaren 17an hasiko da, asteazkena, Azkuna Zentroan. Kalakan eta Khami taldeek sortutako MUGAK ikuskizunarekin hasiko da, eta Errobiren eskutik iritsiko da, aurtengo gonbidatua den Lapurdiko Itsasu herriko jaialdia. Kalakan hirukoteak euskara eta txalaparta ezagutzen eman zituen Madonnaren munduko biran, eta 20:00etatik aurrera txalapartaren, albokaren edo txirularen antzinako soinuak hainbat perkusio instrumenturekin lotuko dituzte, bai eta planetako beste leku batzuetako tresnekin eta musika elektronikoaren zertzeladekin ere.

## **ATAL BERRIA: ZINEMA, ZAZPIGARREN EUSKAL ARTEA**

basque FEST 2019ren berritasun garrantzisuenetako bat Zinema atala sartzea izan da. BBK Salan, Koldo Serra zuzendari bilbotarraren *Gernika* filma ikusi ahal izango dugu.

Apirilaren 18an, 19an eta 20an proiektatuko da 2017. urteko Goya sarirako izendatu zuten filma. Gainera, ikusleek “Gernika, kameren atzean” erakusketaz gozatu ahal izango dute David Herranz argazkilariaren eskutik.

## **EUSKAL MUSIKAREN GARRANTZI BEREZIA**

Musika oso garrantzitsua da basque FESTen, eta Kalakanen ikuskizunak izar eta pertsona handiak bilduko ditu. Hori horrela, apirilaren 20an, larunbata, ikuskizun baten munduko

estreinaldia egingo da Azkuna Zentroan, gaueko 22:00etan. Abiapuntua da banda moldakorra Oreka TXen txalapartaren eta San Salvador banda okzitaniarren polifoniaren inguruan muntatzea. Guztira, hamaika musikari eta abeslari igoko dira agertokira haien kulturan oso errotuta dauden, baina, hala ere, eguneratzeko eta topaguneetarako prest dauden bi talderekin.

Aurtengo edizioan, emakumeak nabarmenduko dira musikaren atalean. Mallabiko Izaro kantautoreak 2020. urtera arte Euskadin egingo duen azken kontzertua eskainiko du hilaren 18an, osteguna, 21:00etan Plaza Barrian. Beste alde batetik, Nora Izagirre, Miren Narbaiza eta Olatz Salvador euskal artisten ahotsak entzun ahal izango ditugu Bilborocken.

Aurtengo musika-ikuskizun entzutetsuenetako bat Izaroren kontzertuaren ostean izango da, hurrengo egunean, Plaza Barrian bertan. Korrontzik dantza eta musikaren arteko fusioa eskainiko du. Folk musika-taldeak Bizkaia osoko 12 dantza- eta musika-talderekin bat egingo du “Bilbora bi-lora dantzan” emanaldi esklusiboa sortzeko, eta ehunka artista bilduko dira agertokiaren gainean. Udaberriaren soinuak eta mugimenduak birsortuko dira modu bisual eta original batean.

Kafe Antzokiak basque FEST Rock City programatuko du berriz ere, eta gaur egungo euskal panoramaren talderik onenak bilduko ditu kartelean. Egunero egongo dira kontzertuak 22:00etatik aurrera, eta aurtengo nazioarteko talde gonbidatua Eskoziako Teenage Fanclub taldea izango a.

## **ESPAZIO BERRIAK**

Bestalde, jarduera gehiago egingo dira, eta horiek garatzeko spazio gehiago egongo dira. Aurtzen bi leku berri egongo dira aurreko edizioetako betiko spazio hauez gain: Txoko Gourmet, Azkuna Zentroa, Plaza Barria, Guggenheim Bilbao Museoaren zabaldegia, Bilborock, Pio Barojako pantalana, Sport espazioa Areatzan, Alde Zaharra, Kafe Antzokia, Garcia Rivero, Poza Lizentziatura, Villarias eta Ledesma kaleak, itsasadarra, Artxanda, Euskal Museoa.

Lehenik eta behin, Zabalguneko eraikinean dantza tradizionaleko jantzien erakusketa bat egongo da, bai eta erraldoien tailer berri bat ere familientzat. Parte-hartzaileek, betiko pertsonaia horiei buruzko informazioa jasotzeaz gain, kalejira bat egingo dute Bilboko kale ezagunenetako bateraino: Ledesma. basque FESTen bigarren spazio berria Arriaga plaza izango da, non kaleko animazioa eta akelarre bat egingo diren, basque FESTen azken ukitu magiko gisa.

## **AMAITZEKO, AKELARRE BAT**

Jaialdiaren azken gauean, jendeak euskal kulturaren eta mitologiaren erroei lotutako ikuskizun magiko batez gozatuko du: akelarrea. “Negua”, Arriaga plazan, apirilaren 20an, larunbata, 21:00etan. Sua izango da protagonista. Ilun-ilun dagoela, gazte batzuek gure arbasoen errituak eta mitoak birsortuko dituzte. Antzinako zeremonia bat egingo dute betiko mugimendu, erritual eta dantzekin, eta bertaratzen direnak liluratuko dituzte.

## JARDUERAK ITSASADARREAN, HERRI KIROLAK, ERROMERIA....

Itsasadarrean ibilbide gidatuak egingo dira *step* akuatikoekin. Modalitatea gero eta ezagunagoa da, eta ur gaineko ohol bat baino ez da, non pedal batzuei esker pausoak eman daitezkeen uraren gainean. Itsasadarra beste ikuspuntu batetik bizitzeko aukera bat, familiek gozatzeko moduko, gainerako jarduerekin gertatzen den bezala, batelak, hasteko traineruak eta 30 minutuko ibilbide antzeztuak Pio Baroja pantalanetik Erriberako Merkatura Bilboats delakoan. Gainera, bi gidari oso berezi izango dira bertan, Begotxu eta Mirentxuren iloba.

Artxandako herri kirolak eta erromeria gero eta ikusle gehiago hartzen dituzten beste jarduera batzuk dira. Areatzako pasealekua izango da euskal herri kirolen erakustaldiak egiteko txokoa, eta kirol hauetako profesionalak izango ditugu, besteak beste, lastobotatzea eta -altxatzea, ingudea altxatzea, aizkolariak eta trontza, barrenaria, gizon-probak eta harri-jasotzaileak. Kirol-egitaraua osatzeko, esku-pilotara jolasteko tailerrak egongo dira. Horrez gain, herri-erromeria Artxandan antolatuko da, eta AIKO taldeak girotuko du. Taldeko irakasleek, jaia girotzeaz gain, dantzatzen irakatsiko diente parte hartu nahi duten pertsona guztiei.

## GASTRONOMIA TXOKO GOURMET-EN

Txoko Gourmet Areatzan instalatu den 1.500 m<sup>2</sup>-ko karpa batean egingo da, eta bidaia enogastronomikoaren protagonista izango da berriz ere. Hainbat leku turistikotatik egingo den ibilbideari esker, lurrealdeen xarma ezagutzeko aukera egongo da informazio-standetan. Guztira, 2.160 leku egongo dira doako dastatzeak egiteko, eta hainbat lekutako produktuak gozatzeko aukera egongo da, hala nola Aiaraldea, Iparralde (Lapurdi, Nafarroa Beherea, Zuberoa), Arabako Errioxa, Enkarterri, Gorbeia, Lea Artibai, Urdaibai, Uribe, Goierri, Tolosaldea eta Euskal Kostaldeko Geoparkea. Bestalde, espazio horretara hurbiltzen direnek gehiago ikasi ahal izango dute 45 minutuko tailerretan, non Basque zukuak, ogia, taloa eta krepeak egiten ikasiko duten, itsasokoak zein mendikoak. Baskegur Euskadiko Baso eta Zur Elkarteak laga duen 0 kilometroko egurrarekin apainduko da.

## EUSKARA, BASQUE FEST 2019KO PROTAGONISTA

Euskara, mila urte duen gure hizkuntza, izango da basque FESTeko egitarauko protagonista. Edizio honetako berritasunetako bat euskara-eskolak izango dira. Bilbotik ibili ahal izateko euskarazko esapideak ikasteko tailerretan; bertaratzen direnek agurtzen ikasiko dute, bai eta eskerrak ematen eta taberna eta jatetxeetan euskaraz eskatzen ere. Hogei minutuko eskola laburrak Areatzan emango dira beste tailer didaktiko batzuekin, besteak beste, Bilborockeko bertsolaritza-tailerrak. Jarduera horretan, bertsolaritzaren historia jorratuko da, eta parte-hartzaileak animatuko dituzte bertsoak sortu eta bota ditzaten.

## KLASIKOAK

Bilboko anfitrioien ibilbideak basque FESTen gehien txalotzen diren jardueretako bat dira. Ibilbide antzeztuetan modu ludikoan ezagutu ahal izango da hiribilduaren historia, baina, gainera, ezusteko atseginak ekarriko dizkigun ibilbide bat izango da. Azkuna Zentroan, nola ez, haurrentzako jarduerak antolatuko dira. Aurten, halaber, programazioa handituko da etxeko txikienentzat. basque FESTen gertatu ohi den bezala, kalejirei esker, hiriko txoko guzietara iritsiko da jaia, eta Erribera, esaterako, jazz doinurik onenen agertokia izango da berriz ere.

## ZIFRAK

Hiriko gizarte- eta ekonomia-bizitza dinamizatzen duen ekitaldia dugu basque FEST. Jarduerez betetako bost egunei esker, Bilbo turismorako erreferentziazko lekua da Aste Santuan. Iaz markak hautsi ziren, guztira, 100.148 pertsona bertaratu baitziren.

Jatetxeek, tabernek, goxo-dendek eta saltoki espezializatuek, urtero bezala, jaialdian parte hartuko dute. Aurtengo edizioan, inoiz baino establezimendu gehiago egongo dira: ostalaritzako eta merkataritzako 360 establezimendu. 300 jarduera baino gehiago barne hartzen dituen basque FESTen programazio zabalean, honako hauek parte hartuko dute: 405 artista, jarduerak ekoizteko eta gauzatzeko 253 langile, 53 musika-, dantza- eta antzerki-ikuskizun eta 37 kirol-jarduera, besteak beste, herri kirolak, eskupilotak, arrauna eta step akuatikoak.

Udalak 25.000 informazio-liburuxka banatuko ditu jarduerei, ordutegiei eta herritarrentzat erabilgarria den informazio guztiarekin.



<http://www.basquefest.com>

## basque FEST, EL FESTIVAL DE LA CULTURA VASCA, REGRESA A BILBAO EN SEMANA SANTA CON MÁS DE 300 ACTIVIDADES, NUEVOS ESPACIOS Y LA SECCIÓN ZINEMA

- Del 17 al 21 de abril basque FEST, el programa elaborado por el Ayuntamiento de Bilbao para la Semana Santa, ofrece en esta nueva edición más de 300 actividades, en su mayoría gratuitas y para todos los públicos, relacionadas con la gastronomía, el teatro, la música, la danza, los herri kirolak, y un largo etcétera.
- Una de las grandes novedades es la nueva sección Zinema que se añade a las clásicas –Kultura, Musika, Market, Sport y Gourmet- con el estreno de la película “Gernika”, del director bilbaino Koldo Serra, en la Sala BBK, y la exposición “Gernika, detrás de las cámaras”, de la mano del fotógrafo David Herranz.
- El festival invitado de esta edición, Errobi, de la localidad labortana de Itsasu, marcará el arranque del festival con el espectáculo MUGAK, de Kalakan y Khami, el miércoles 17 de abril a las 20:00 horas en Azkuna Zentroa. La oferta musical, uno los platos fuertes de basque FEST, reunirá a consolidadas estrellas como Oreka TX o San Salvador y figuras de destacada proyección como la cantautora de moda Izaro, entre otros.
- El Edificio del Ensanche y la Plaza del Arriaga se suman como nuevos espacios con una exposición de trajes de danza tradicionales y un novedoso taller de gigantes para familias y animación callejera.
- El Arenal acogerá un año más el Txoko Gourmet, una carpa de más de 1.500m<sup>2</sup>, donde doce comarcas turísticas vascas y asociaciones darán a conocer lo mejor de sus territorios con stands informativos y catas de productos para un total de 2.160 personas. El broche final lo protagonizará un Akelarre, ligado a las raíces de la cultura vasca y su mitología, en la Plaza del Arriaga.

(Bilbao, 25 de marzo de 2019.-) La fiesta de la cultura vasca regresa un año más a Bilbao durante la Semana Santa. Del 17 al 21 de abril basque FEST llevará a la Villa una oferta de cultura y ocio más amplia que en ediciones anteriores. Este programa, elaborado por el Ayuntamiento de Bilbao, lo componen más de 300 actividades en su mayoría gratuitas para todos los gustos y edades, donde a las secciones habituales del festival -Kultura, Musika, Market, Sport y Gourmet- se suma Zinema, representada en esta edición por la película “Gernika”, del director bilbaino Koldo Serra.

Bilbao será, por séptimo año consecutivo, un escenario para ver pruebas de Herri Kirolak, disfrutar de los mejores productos gastronómicos, acercarse al euskera y contagiarse de la alegría de las kalejiras, entre otras propuestas. basque FEST regresa con nuevos

espacios, renovadas actividades en la Ría y una oferta musical de primer nivel, en la que destacan las actuaciones del trío vasco francés Kalakan, el estreno mundial del nuevo espectáculo de Oreka TX y San Salvador y la estrella del pop vasco, Izaro.

## **SIETE EDICIONES**

En sus siete años de andadura, basque FEST se ha consolidado como un foco de actividad económica y atracción de visitantes a Bilbao. Se trata de un proyecto que busca dinamizar la ciudad, potenciar el denominado “mercado de proximidad” y el turismo cultural, así como ofrecer una propuesta de calidad a los bilbaínos y bilbaínas que se quedan en la ciudad durante la Semana Santa. La última edición del festival batió récords de participación con más de 100.000 personas.

Las actividades están programadas por el Ayuntamiento de Bilbao y con el apoyo de las asociaciones de comerciantes Bilbao Dendak, Bilbao Centro, Casco Viejo-Zazpi Kaleak y San Francisco, Bilbao La Vieja y Zabala, además de otras instituciones y entidades como la Asociación de Hostelería de Bizkaia, Bilbao Historiko, Baskegur, Metro Bilbao, Fundación BBK, comarcas turísticas (Aiaraldea, Iparralde, Rioja Alavesa, Enkarterri, Gorbeia, Lea Artibai, Urdaibai, Uribe, Goierri, Tolosaldea, Geoparque de la Costa Vasca), Bilbao Musika, Museo Vasco y distintos agentes culturales como Kafe Antzokia y La Ribera, entre otros. Se trata, por tanto, de una nueva muestra de cooperación interinstitucional y público-privada para poner en marcha eventos de ciudad.

## **EL FESTIVAL ERROBI DE LA LOCALIDAD LABORTANA DE ITSASU SERÁ EL INVITADO DE ESTA EDICIÓN**

La fiesta de la cultura vasca dará comienzo el miércoles 17 de abril en Azkuna Zentroa con el espectáculo MUGAK, creado por Kalakan y Khami, que llega de la mano de Errobi, festival de la localidad labortana de Itsasu, invitado de esta edición. Kalakan, trío que dio a conocer el euskera y la txalaparta en la gira mundial de Madonna, unirá a partir de las 20:00 horas los ancestrales sonidos de la txalaparta, la alboka o la txirula con diferentes percusiones, instrumentos de otros rincones del planeta y pinceladas de música electrónica.

## **NUEVA SECCIÓN, ZINEMA, SÉPTIMO ARTE VASCO**

Una de las novedades más importantes de basque FEST 2019 es la incorporación de la sección Zinema. En la sala BBK se podrá disfrutar de la película “Gernika”, del director bilbaíno Koldo Serra.

Los días 18, 19 y 20 de abril se proyectará este film que estuvo nominado a un premio Goya en 2017. Además, el público podrá disfrutar de la exposición fotográfica “Gernika, detrás de las cámaras”, de la mano del fotógrafo David Herranz.

## **PROTAGONISMO ESPECIAL DE LA MÚSICA VASCA**

La música tiene un peso muy importante en basque FEST; a la actuación de Kalakan, este año se unen grandes estrellas y figuras. Así, Azkuna Zentroa acogerá el sábado 20 de abril a las 22:00 horas, el estreno mundial de un espectáculo cuyo punto de partida es el ensamblaje de la versátil banda en torno a la txalaparta de Oreka TX y polifonía occitana de la banda San Salvador. En total, once músicos y cantantes se subirán al escenario con dos bandas con las raíces muy arraigadas en su cultura pero abiertas a actualizarlas y llevarlas a lugares de encuentro.

Esta edición añade al apartado musical un marcado acento femenino. La cantautora de Mallabia, *Izaro*, ofrecerá en la Plaza Nueva, el jueves 18, a las 21:00 horas, su último concierto en Euskadi hasta 2020. Por su parte, en Bilborock, disfrutaremos de las voces de las artistas vascas Nora Izagirre, Miren Narbaiza y Olatz Salvador.

Otro de los espectáculos musicales de este año tendrá lugar un día después del concierto de Izaro en la misma Plaza Nueva. Korrontzi ofrecerá una fusión de danza y música. La banda de música folk se sumará a 12 grupos de dantzas y música de toda Bizkaia para crear un exclusivo espectáculo llamado “Bilbora bi-lora dantzan”, que reunirá a un centenar de artistas sobre el escenario. Recrearán los sonidos y movimientos de la primavera de forma visual y original.

Kafe Antzokia volverá a programar basque FEST Rock City con un nutrido cartel con lo mejor del panorama vasco actual. Los conciertos tendrán lugar todos los días a las 22:00 horas, y como grupo internacional invitado de este año actuarán los escoceses *Teeenage Fanclub*.

## **NUEVOS ESPACIOS**

Además del aumento de actividades, también incrementa el número de espacios en los que se desarrolla. A las tradicionales localizaciones de anteriores ediciones, como son la carpa Txoko Gourmet, Azkuna Zentroa, Plaza Nueva, explanada del Museo Guggenheim Bilbao, Bilborock, el Pantalán Pío Baroja, el espacio Sport en el Arenal, el Casco Viejo, Kafe Antzokia, las calles García Rivero, Licenciado Poza, Villarías, Ledesma, la Ría, Artxanda, el Museo Vasco, el mercado de La Ribera o el Muelle Marzana, este año se suman otros dos.

En primer lugar, el Edificio del Ensanche acogerá una exposición de trajes de danza tradicionales y un novedoso taller de gigantes para familias. Las personas participantes, además de conocer cómo se realizan estos personajes tradicionales disfrutarán de una kalejira hasta una de las calles más conocidas de Bilbao: Ledesma. El segundo nuevo espacio basque FEST es la plaza del Arriaga con animación callejera y un akelarre que pondrá un broche mágico a basque FEST.

## UN FINAL CON UN AKELARRE

La última noche del festival, el público disfrutará de un espectáculo mágico ligado a las raíces de la cultura vasca y su mitología: un akelarre. "Negua", en la plaza del Arriaga el sábado 20 de abril a las 21:00 horas, girará en torno al fuego. En la oscuridad, varios jóvenes reinterpretarán los ritos y mitos de sus antepasados. Una ceremonia ancestral con movimientos, rituales y danzas tradicionales que embaucarán a las personas asistentes.

## ACTIVIDADES EN LA RÍA, HERRI KIROLAK, ROMERÍA...

La Ría será escenario de travesías guiadas con *steps* acuáticos. Una modalidad en auge que consiste en una tabla flotante que permite, gracias a unos pedales, dar pasos sobre el agua. Una forma de ver la Ría desde otro punto de vista e ideal para familias, al igual que el resto de actividades como el remo en bateles, la trainera de iniciación, y los paseos teatralizados de 30 minutos de duración desde el Pantalán de Pío Baroja al Mercado de la Ribera a bordo del Bilboats de la mano de dos guías muy especiales "Begotxu" y el sobrino de "Mirentxu".

Los Herri Kirolak y la Romería en Artxanda son otras de las actividades que, edición tras edición, congregan a mayor público. El Paseo de Arenal será el escenario de las exhibiciones de deporte rural vasco de la mano de deportistas profesionales de levantamiento y lanzamiento de fardos y yunque, corte de troncos y tronza, barrenadores, arrastres y levantamiento de piedras. La programación deportiva se completa con talleres de pelota vasca. Por otro lado, la romería popular que se celebrará en Artxanda estará amenizada por AIKO Taldea. Los 'maisus' o profesores del grupo no sólo animarán la fiesta; además, enseñarán a bailar a todas las personas que quieran participar.

## GASTRONOMÍA EN TXOKO GOURMET

El Txoko Gourmet, ubicado en una carpa de más de 1.500 m<sup>2</sup> instalada en pleno Arenal, volverá a ser el enclave protagonista de un viaje enogastronómico. Una ruta por diferentes destinos turísticos que darán a conocer los mayores atractivos de sus respectivos territorios a través de stands informativos. Las catas gratuitas contarán con 2.160 plazas para probar los productos de Aiaraldea, Iparralde (Lapurdi, Nafarroa Behereoa, Zuberoa), Rioja Alavesa, Enkarterri, Gorbeia, Lea Artibai, Urdaibai, Uribe, Goierri, Tolosaldea y Geoparque de la Costa Vasca. Además, en este espacio las personas que se acerquen podrán ampliar sus conocimientos culinarios en los mini-talleres de cocina de 45 minutos de duración para aprender a hacer zumos Basque, pan, talo y crepes mar y montaña. Este enclave estará decorado con madera km0 cedida por Baskegur, la Asociación de la Madera de Euskadi.

## EL EUSKERA, PROTAGONISTA EN BASQUE FEST 2019

El euskera, nuestra lengua milenaria, tiene un protagonismo especial en la programación de basque FEST. Una de las novedades de esta edición serán las *clases exprés* de euskera. En estos talleres, denominados "Aprende expresiones en euskera para andar por

"Bilbao", quienes nos visiten aprenderán a saludar y despedirse, dar las gracias y desenvolverse al pedir en euskera en bares y restaurantes. Estas mini-clases de 20 minutos, que tendrán lugar en la carpa del Arenal, se suman a otros talleres didácticos: los de bertsolarismo, que se celebran en Bilborock. Una actividad que abordará la historia de esta disciplina y en la que se animará a los y las participantes a componer sus propios 'bertsos'.

## LOS CLÁSICOS

Los recorridos de los "Anfitriones de Bilbao" son una de las actividades más aplaudidas de basque FEST. Estas rutas teatralizadas permiten conocer de forma lúdica la historia de la Villa a través de un itinerario que esconde agradables sorpresas. No faltarán las actividades infantiles en Azkuna Zentroa, que este año amplían su programación, para los y las más pequeños y pequeñas de la casa. Como es habitual en basque FEST, la fiesta llegará a todos los rincones de la ciudad a través de las kalejiras, mientras que La Ribera volverá a ser escenario de las mejores notas de jazz.

## CIFRAS

basque FEST se ha erigido en un evento dinamizador de la vida social y económica de la ciudad. Sus cinco jornadas de programación han contribuido a consolidar Bilbao como destino turístico de referencia en Semana Santa. El año pasado batió su récord de participación al sumar un total de 100.148 personas.

Restaurantes, bares, pastelerías y tiendas especializadas se involucrarán como cada año en el festival. En esta edición suman el mayor número hasta la fecha: Un total de 360 establecimientos de hostelería y comercio.

La extensa programación de basque FEST, que incluye más de 300 actividades, implica la participación de 405 artistas, 253 personas empleadas en la producción y ejecución de actividades, 53 espectáculos de música, danza y teatro, 37 actividades de deporte, entre las que destacan las exhibiciones y talleres de herri Kirolak, pelota vasca, remo en bateles y steps acuáticos.

El Ayuntamiento repartirá 25.000 folletos informativos con todos los detalles sobre las actividades, los horarios e información que pueda resultar útil para la ciudadanía.



<http://www.basquefest.com>